

GASTEIZ GEU

80.zk
1999ko
abuztua

GEU elkartearen babesarekin

AMAIA
GONZALEZ GARCIA
Urriaren Hamabia 12 - 1 EZK.

01003 GASTEIZ

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**ZE ledon
prest??**

globene



- **LIBURUDENDA**
- **PAPERDENDA**
- **ALDIZKARIAK**
- **FASZIKULUAK**
- **PRENTSA**
- **EUSKAL MUSIKA**
- **BIDEOAK**
- **OPARIAK**
- **PUZZLEAK**
- **JOKU DIDAKTIKOAK**
- **ETA ABAR...**

“Euskara eta kulturaren alde
profesionaltasun osoz”

**Benito Guinea, 2 • Tel.-Faxa: 945 25 75 14
01003 - Gasteiz**

azalean



Egilea: Iñigo Sarasola

Urtero legez, abuztuaren 4a eta 9a bitartean Luis Heinz kalea festa eta errebindikaziorako gune bilakatuko da. Txosnen giro bereziak milaka lagun erakartzen ditu urtero, eta aurten gainera, ohikoak diren kontzertuez gain, bestelako ekitaldiak ikusteko parada izango da txosnetan.



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Kultura Saila



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

4.orr

Geu Azoka,
Termometroa, Fotonotizia

6.orr



Laburretan

9.orr

Kalea Mintzo

10.orr



8812
Ekimena

13.orr

Musika denboran zehar

14.orr

Mikel
Urdangarin



17.orr

Gasteizko Jaietako Egitaraua

21.orr



Txosnak.
Jaietako
beste aukera.

24.orr

Aihotz plaza.
Euskaldunon esparrua.

25.orr



Sosoaga.

Kale Gorrian.

26.orr

Herri Kirolak

29.orr

Piti-Pata



Geu Gasteiz, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a · Telefonoa eta Faxa: 945 22 21 53

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño, Estitxu Breñas eta David Alvez. Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain. Argazkiak: Edorta Sanz. Maketa: Izadi Editoriala. Komikia: Iñigo Sarasola. Kolaboratzaileak: Ania Ibisate eta Iñigo Kastresana. Publizitatea: Karlos Fdz. de Betoño. Banaketa arduraduna: Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 · Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.

PREMIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

..... 945 112

UDALZAIINGOA:

..... 945 092

INFORMAZIOA:

..... 945 010

SUHILZAI LEAK:

..... 945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

..... 945 22 22 22

D.Y.A.:

..... 945 28 10 20

ERIE TXEETAKO URGENTZIAK:

..... 945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

..... 945 25 84 00

RENFE:

..... 945 23 02 02

AIREPORTUA:

..... 945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

..... 945 28 20 00

HIRI-BABESA:

..... 945 16 11 61

UDALETXEA:

..... 945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

..... 945 18 18 18



Kan Groak

Haurrak zaintzen ditugu

ASTEBURUAN

Olatz	945 25 61 20
Montse	945 26 78 12
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Leire	945 23 12 23
Jose Angel	945 27 62 14
Saida	945 26 58 05
Idoia	945 24 47 79
Maidier	945 24 90 62
Belen	945 13 65 10
Monika	945 13 86 21
Itziar	945 13 86 21
M. Jesus	945 13 54 35
Estitxu	945 25 99 60

GOIZEZ

Maidier	945 26 15 75
Nekane	945 26 91 53
Eduardo	945 14 21 99
Leire	945 27 32 81
Lorena	945 27 10 13
Ainara	945 24 04 42
Ana	945 26 65 95
Eriete	945 29 96 50
Estitxu	945 27 65 07

ARRATSALDEZ

Maidier	945 26 15 75
Oihana	945 25 30 35
Aintzane	945 27 09 64
Iratxe	945 24 51 81
Ainara	945 23 38 28
Lorena	945 27 10 13
Patrizia	945 27 78 19
Leire	945 23 12 23
Maidier	945 24 90 62
Estitxu	945 27 65 07

GAUEZ

Esther	945 27 84 57
Idoia	945 24 47 79
Lorena	945 27 10 13
Montse	945 26 78 12
Ainara	945 23 38 28
Txaro	945 28 08 85
Maidier	945 24 90 62
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Uxue	945 24 37 11

Geu Gasteizek ez du sail honetan sortzen diren harremanen ardurarik hartzen

Geu SALMENTAK

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 2.000 ptan saltzen dut, detan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 28.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handia eta sendoa da, ia batere erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 8.000 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. 945 28 10 67.

CANON 1000 F bi objektiborekin 35-80mm / 80-200 mm salgai. Oso modernoa aukera askorekin. Oso ondo dago, kutizia-gatik aldatu nahi dut. 40.000 pta. Tf.: 945 28 10 67.

Lanpara bat dut salgai sarrean ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da. 945 22 73 03 Maite. Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana.

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66.

Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatarri kalea, 29, behea.

BESTEAK

Errentan uzten da Opakuako mendian, Araba, 100m2ko etxola, 6000m2ko zoroan kokatua. Informazioa: 945 30 10 27, bulego ordutegian, Isabel.

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta haurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamendua alokatzen da uda honetan, hondartza ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Pertsona euskalduna behar da 2 ume zaintzeko, 16:30etatik 18:45etara. Hilean bi asteartetan eguerdian ere bai (12:30etatik 18:00ak arte). Gavez deitu 945 24 55 40 telefonora.

Umezain euskalduna behar da Gasteizko Lasarten. Interesatuak deitu 945 147 417 telefonora 15:00etatik aurrera.

Datorren ikasturtean ume bat zaintzeko pertsona bat behar dut, orduren batean goizez eta ordu batzuetan arratsaldez. Maite. 945 22 73 03

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA
 JOSE URUÑUELA
 KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE
 RAMIRO DE MAEZTU
 KALEAN
 HERRIKO TABERNA
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

 "SAN FRANCISCO
 JAVIER" KANTOIAN

FOTONOTIZIA

Zinema euskaraz Gasteizko kaleetan

Udalarekin izandako oztopoak gaindituz geroztik -dirulaguntzarik ez, Aibotz plazako (hasiera batean hautatu lekua) argiak gora argiak behera, zine-areto komertzialei konpetentzia egitea dela eta ez dela...-, Gasteiztarrok, Geu Elkarteak eta Bagarek Alde

Zaharreko jaien egitarauaren barruan antolatua, uztailaren 2ko gaueko

11etan Landatxon "Errebelde baten egunkaria" filma euskaraz ikusteko aukera izan

genuen, zenbait lagun bildu zelarik bertara. Ez zen kopuru makala izan lehenengo aldia izateko. Hurrengoan gebiago eta hobeto!



Edurne Rey

ZINEMA EUSKARRAZ
PLAZARA

SARRERA
LIBRE

LEONARDO
DI CAPRIO
ERREBELDE
BATEN EGUNKARIA

Lekua: Alde Zaharreko Landatxo
Eguna: Uztailaren 2an (Ostirala)
Ordua: Gaueko 11:00 etan

E. B. Z.

HOZKAILUA



Oraingoan geure termometroa geldirik dugu, ez baitaki gora ala behera joan, Gasteizko alkateak, Alfonso Alonso jauna, euskara ikas-teari ekingo ziola esan zuenetik. Termometroa gora, euskara ikasiko duelako, bai. Dena dela, ez dago sobera; aitzitik, Euskal Herriko alkate guztien eginbeharretako bat beharko luke izan, ezta? Eta termometroa behera, tristea delako behin alkatetza lortutakoan, eta ez lehenago, zaren herriko hizkuntza ikasten hastea. Hobe da noizbait, inoiz ez baino, jakina, baina guztiok hori egingo bagenu, akabo euskara, agur kulturari... Jai leukakete!

Edorta Sanz

E. B. Z.

erosotasun guztiak
zure esku

bakarrik 14.900 pta.n

Multilens lente-kaxa 2, disoluzio bakarrekote pote 2 eta lenteak eramateko kutxa 2. Estreina itzazu hilero eta froga ezazu zein erraza den horiek edozein jardueratan erabiltzea. Eskura ezazu zure

6 hilerako packa eta eraman ezazu koltxoneta zoragarri bat opari moduan.*

CIBA
Vision

Travel Club txartelarekin puntu bikoitzak lortu ahal izango dituzu



ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTICA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Animaliak



babesik gabe

dituela dio, animalia asko kontuan hartzen ez direlako.

ATEAko ordezkariak azaldu zuten elkarte ez dela talde ekologista, animalien sufrimenduaren aurka lan egiten duen taldea baizik "persona eta animalien arteko sufrimenduaren artean ez baitago inolako aldeirik". Hala ere, abere-

nari ez zaiola inolako kasurik egiten adierazi dute ATEAko kideek, "oso adierazgarria da hauteskondeak baino lehen alderdi politikoekin harremanetan jartzen saiatu ginela eta ez genuela inolako erantzunik jaso".

Animalien Babeserako Legea ez dela betetzen salatatu du ATEA Elkartek. Are gehiago, erakundeek legea betearazteko interes handirik ez dutela esan zuten, ezagutu ere oso ondo ezagutzen ez dutelako. Egin den legea ez betetzeaz gain, legeak berak hutsune nabarmenak

Argitu gabeko gertaerak

Iker Jimenez kazetari arabarrak "Enigmas sin resolver" liburua aurkeztu berri du. Liburuan inork azaldu ezin izan dituen hamabost gertaera edo kasu azaltzen dira, tartean Otxate, Trebiñoko herri misteriotsuarena. Azalpen erraza ez duten gertaeren gaia modan dago eta interesa duen jende guztiarentzako liburua da kazetari gasteiztarrarena, ez da teknikoa eta irakurterreza da.

Gaiak izua sortzeko ematen badu ere liburuaren egileak kasu hauek errealitatean oinarrituta jorratu behar direla esan du, "izan ere, gauza paranormalak egon hor daude, azalpenik aurkitzen ez diegunez bazterten saiatzen bagara ere". Errealitatea oinarri hartuta ere, Otxaten, adibidez, telebistako Expediente X-en agertzen diren antzeko fenomenoak gertatzen direla azaldu zuen.



Florida kalean

semaforo eske

Udalak Jose Lejarreta eta Florida kaleek bat egiten duten lekuan semaforoa jarriko duela iragarri du, Izpiritu Santuaren eliza parean dagoen semaforo intermitentea aldatzea sartu berri den Udal Batzaren esku utzi du. Udalak azaldu duenez,

semaforo arrunta jarri gero inguruko guztiak aldatu beharko lirakete.

Santa Luziako bizilagunek hainbat mobilizazio burutu dituzte azken istripu larria gertatu zenetik, ekainaren 29ko kontzentrazioan Ertzantzarekin istilu larriak gertatu zirelarik. Errepidea moztuta zuten haur eta helduen aurka jo zuen polizia eta ondorioz bi zauritu izan ziren, ertzainek auzokideak borrarekin jo eta gomazko pilotak jaurtiki zituzten-eta.

Ekainaren 17an kotxe batek harrapatuta bi emakume hil ziren eta inguruko bizilagunek semaforoak exigitu dituzte oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Leku horretan bertan, Florida kalearen amaieran, Jose Lejarreta eta Jacinto Benavente kaleen bitarteko zatian, aurretik ere beste persona bat, haur bat, autoak harrapatuta hil zela gogorazi zuten eta kotxeek errepide luze horretan hartzen duten abiadurari aurre egiteko semaforoa behar-beharrezkoa dela aldarrikatu dute auzokoek.

TXUSTA

TABERNA

ESPEZIALITEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



eguneko menua

Lanak hil

1999ko lehengo sei hilabeteetan zortzi lagun hil dira laneko istripuen ondorioz Araban. Azkenengo hamarkadan lanean hildakoen kopuruak gora egin du etengabe; iaz lehengo seihilekoan bi izan ziren zendutako langileak. Hildakoez gain, 2.600 langilek izan du istripuren bat aurten.

Hildakoen kopuru altuena industria eta eraikuntzan izan ohi da eta hainbat istripu ere gertatzen dira langileak lantegiraino autoz doazenean. Araban hiru pertsona hil ziren laneko istripuen erruz urtarrean; Alimco enpresako gizon bat teilatutik erortzean eta bi lagun etxetik lantegira zihoazenean. Otsailean beste langile bat hil zen Fundix-en burnizko plaka bat gainera erori zitzaioanean. Martxoan beste bi gizon hil ziren lanean, eraikuntzako langileak biak. Eta oraingoz azkeneko heriotza ekainean izan da, Amurrio Ferrocarrileko



labeak eztanda egitean hil zen gaztea.

Duela hiru urte indarrean sartutako Lanen Arriskueterako Legeak enpresari eta langileek hartu beharreko neurriak zehazten baditu ere, istripu kopuruaren gorakada ez da eten. Sindikatuek enpresek legea ez dutela betetzen salatu eta langileen behin-behinekotasunak arriskua gehitzen duela adierazi dute, langileek ez dutelako hainbat lan egiteko beharrezkoa den formakuntza izaten.

Ohitura txarrak baztertuz

Araiako jaietako aurtengo danborradan emakume talde bat aritu zen 90 urte luzetako ohitura zaharra baztertuz. Herriko jaietako ekitaldirik nagusienean emakume eta gizonak batera parte hartu zuten lehen aldiz. Euskal Herriko beste herrietatik datozen berriekin kontrajarriz eta Lautadako beste herrietan, Agurain kasu, gertatu den bezala, emakumeen partehartzea normaltasun osoz burutu da. Urtez urte gizonak egin

duten moduan 50 bat araiatar emakumek praka beltza, alkandora zuria eta txapel gorria soinean zutela egin zuten danborradaren ibilbidea herri-tar eta bertara inguratu ziren guztien aurrean. Danborrada jaietako aste-larunbat gauean egiten dute Araian eta Lautada eta Gasteizko jende asko biltzen dutenez herriko festek, emakumezkoen lehen aktuzioak lekuko ugari izan zituen.

Oherik gabeko gaixoak

Txagorritxu ospitaleko arduradunek bertako sailen berrantolaketa eta ohe murrizketa iragarri bezain laster bertako langileek euren kritikak kaleratu dituzte.

Ospitale publikoaren arduradunek ohe murrizketa egitearen arrazoia behar berrietara egokitzean eta teknologia berrietan oinarritu dute. Txagorritxuko langileen

iritziz, berriz, ospitalea etekin ekonomikoa gaixoen ongizatearen gainetik jartzen ari da.

Langileek zenbakiak erakutsiz egin dute kritika: ebakuntzak egiteko oraindik ere itxaron zerrendak kentzea lortu ez bada, ohe gehiegi dagoela sinestea ezinezkoa da. Txagorritxun lan egiten dutenen iritziz zuzendaritzak egindako proposamena oso larria da eta arazoa eztabaidatzeko biltzeko asmoa daukate. Horretaz gain, alderdi politikoekin ere hitz egin nahi dute, eta "beste biderik geratzen ez bada, Legebiltzarrera" jotzeko asmoa agertuz.

LIBURUDENDA

axular

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Martxoaren 3ko biktimak JUSTIZIAREN ZAIN



1976ko martxoaren 3an poliziak Fran-zisko Deunaren elizan asanbladan bilduta zeuden langileen aurka eraso egin zueneko biktimek elkarte bat sortu dute. Duela hogeita hiru urte gertatutakoa aitortu eta arduradun politikoan partehartzea onartzea dute helburutzat. Poliziari aginduak eman zizkioten arduradun politikoek bost langile-en hilketan duten partehartzea onar dadin behar beste erakundetara joko dutela iraga-rrri dute.

Elkartea osatzeko ideia duela urte bete baino gehiago sortu zen, horrela ekimenak aurrera eramateko, indar handiagoa egin eta babesa izango zutelakoan. Egun elkar-tea ofizialtzeko tramiteak amaitzekotan daude, estatutuak prestatzen hain zuzen ere.

Ekimenaren bultzatzaileek adierazi zute-nez, ez dute indemnizazioak eskatzea baz-tertzen, beraientzako bigarren helburua bada ere.

Martxoaren 3an poliziak hildako bost langileak, eta erasoaren ondorioz zauritu eta atxilotuekin gertatutakoa ez ahazteko lan horretan, talde batek Eusko Legebiltzarreko Biktimen Komisioak kasua azter dezan eskaera egin du..

Eguzki talde ekologistak Indus-tria Ministerioak Garoñako zentral nuklearraren funtzionamenduari emandako hamar urteko luzapena-

ren kontrako 28 orduko enkartela-da burutu zuen ekainaren 30an hasita. Hainbat alderdi politiko, sindikatu eta elkartetako ordezkari-

rik Eguzkiren protestarekin bat egin bazuten ere, protestak ez du erantzunik izan eta Madrilgo Industria Ministerioak ekainaren 9an amaitzen zen Garoñaren ustia-pena hamairu urtez luzatzea era-baki du.

Garoña Estatuko bigarren zen-tralik zaharrena da eta aurten 28 urte bete ditu, horregatik 28 ordu-ko protesta. Ministerioak onartuta-ko luzapenarekin 2009. urtera arte gutxienez zabalik egongo dela ziur-tatu du. Garoñako zentrala eraiki zutenean 1996an ixteko asmoare-kin zabaldu zen. Beraz, Minis-terioaren erabakiz hasiera batean uste baino 13 urte gehiago zabalik egongo da zentrala.

Gasteiztik 44 kilometrora dago-en zentralaren behin-betiko itxiera aldarrikatzeaz gain, larrialdi nukle-arretarako planak dituen hutsune-ak gogora ekarri zituzten Eguzkiko kideek.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

• Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36

• Gorbeia Merkaturua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ



Abuztuan, Gasteizen, zerbait berezirik aipatzekotan Andre Maria Zuriaren jaiak dira. Ezinezkoa da gasteiztarrentzat oporraldi garai hau festa hitza tartean ez egotea. Baina oraingo honetan ez zaigu interesatzen nola bizi ditugun jaiak edo zer-nolakoak ditugun gogoko festetan, ez. Honetan, gutxi gora-behera zenbat xahutzen dugun jakin nahiko genuke. Jakin badakigu sei egunotan zehar poltsikoak errazerraz bete zein hustu egiten ditugula, baina zein da diru kopuru hori?

- 1.- Zertan gastatu ohi duzu dirua festa garaian?
- 2.- Udalak egiten duen gastua egokia iruditzen al zaizu?

**Monica Etxano. Ikaslea.**

- 1.- Dirua, batez ere, gauean irteten gastatzen dut; kanpoan afaltzen, tabernetan zerbait hartzen, bokataren bat erosten...
- 2.- Prestatzen dituen ekintzak beharrezkoak iruditzen zaizkit festa onak bizitzeko, eta egiten duten gastuak murriztuagoa ez luke izan behar, agian izan liteke handiagoa.

**Daniel Lpz. del Valle**
Definitu gabea.

- 1.- Egia esan ni neu Gasteizko festetan ez naiz egoten, baina beste jai batzuetan 3000-4000 pezeta erraz joaten zaizkit poltsikotik.
- 2.- Gastatzen duen diru kopurua nahikoa iruditzen zaidan arren kalitatea ez dut gogoko. Ekarki ohi dituzten taldeak ezagunak bai, baina nire gustukoak behintzat ez dira. Punk-a jotzen duten pare bat talde ekarriko balituzte, merkeago irtengo litzaieke, eta ni poztuko nintzateke.

**Naiara Lpz. de Munain.**
Ikaslea.

- 1.- Nik gutxi gora-behera 2000-3000 pezeta gauero behar izaten ditut; lagunekin tragoak hartzen, etxetik kanpo afaltzen edota txosnetan ogitarako bat jaten gastatzen ditut. Egia esan gehiegi.
- 2.- Gauza batzuetan larregi eta beste batzuetan, aldiz, gutxiegi. Hori gustuen araberakoa da. Adibidez, hor ibili dira "blusak" aurrera eta atzera, diru gutxiegi ematen dietela esanez. Ez dakit, espero duzunaren araberakoa da hori.

**Jose Maria Blasko. Jubilatua**

- 1.- Nik neuk asteburu bateko gastua egiten dut, agian apurtxo bat handiagoa, baina kalean ikusten dudana gazteek dirua barra-barra gastatzen dutela da.
- 2.- Orain dena eskatzea eta eskatzea da. Lehen gazteok aurreztu egiten genuen, gero jai on batzuk pasatzeko eta blusa koadriletan parte hartu ahal izateko, eta orain aldiz...

**Mikel Fdz. de Eribe.**
Igeltaria.

- 1.- Hobeto bazkaltzen, gauetan apur bat irteten... ohiko gastuak.
- 2.- Hortan politika dago sartuta barruraino, eta politikoez eztabaidatu beharko luketena da.

**Amelia Valencia.**
Etxekoandrea.

- 1.- Poteren bat hartzen, bueltatxo bat ematen...
- 2.- Nik oso ondo ikusten dut dena. Guztia ongi antolaturik eta aldeztu aurretik prestatu dagoela iruditzen zait.

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

IRUSTA
TABERNA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

8.812 ekimena

“Oinarrizko eskubide batetik dirua ateratzen den bitartean etxebizitzaren arazoak jarraituko du”

Etxebizitzaren arazoa guztion ahotan dago Gasteizen aspaldi honetan, komunikabideek inoiz baino tarte zabalagoa eskaintzen diote gaiari eta Udal hauteskunde kanpainiaren eztabaidetako ardatza izan da. Ziurrenik duela lau hilabete Gasteizko horma guztietan ikus daitekeen 8.812 zenbakiaren kanpainia horrek zerikusirik ere badu. 8.812 ekimenak haserre dagoen jende guztia bildu eta egoerari aurre egiteko diskurtso indartsua egin nahi du. GEU Gasteiz ekimeneko bi kiderekin egon da, Alvaro eta Iñakirekin, hemendik aurrerako asmoen berri jakiteko. Ekimenak haserre eta lan egiteko gogoz dagoen jende guztia bilduz gero, egoerari aurre egitea posible izango dela uste dute eta hemendik aurrera beraien berri izango dugula adierazi dute.

- Noiz sortu zen 8812 ekimena?
-. Orain dela lau hilabete hasi zen ekimen honen islarik nabarmenena, 8.812 zenbakiarekin kartelak kalean ikusten. Eta maiatza amaieran ekimena ezagutzera eman genuen. Asanblada baterako deia egin genuen eta 200 lagun baino gehiago bildu ginen. Gero, uztailaren 20an egindako bigarren asanblada batean gauzak zehaztu ditugu: barne antolakuntza nolakoa izango den erabaki eta irailera bitartean zer egingo dugun, gaia kalean hoztu gabe mantentzea nahi baitugu.
- Planteatu da hemendik aurrera zer egin behar duzuen? Irizpideak mar-

katu al dira?

-. Orain arte egin dena hasiera baino ez da izan. Zenbakiarena publikitate kanpaina izan zen nolabait esateko, jendeari gaiaren berri emateko kanpaina. Hala ere, egin diren bi asanblada eta gero, bigarren fase batean gaude. Asanbladak dauka lana aurrera eramateko ardura guztia. Jendea erakarri dugu, eta gero zerotik hasi gara berriro.

- Helburuak zehaztuta al dituzue?
-. Bi puntu hartu ditugu oinarriztat: etxebizitza guztion eskubidea dela eta horren inguruan sortu den negozio handia salatu behar dela. Baina praktikan orain arte helburua gai horren inguruan kezka eta lan egiteko gogoia duen jendea erakarri eta diskurtso indartsua sortzea izan da. Izan ere, arazoa kalean zegoen, jendea haserre dago gai honekin, baina ez zegoen amankomunean lana garatuko zuen mugimendurik.
- Eta hori da 8.812 ekimena.
-. Guk onartzen dugu orain arte 8812 ekimenetik plazaratutako mezua oso orokorra izan dela.



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETIXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DEZUAK



Baina normala da ekimenak oraindik diskurtso zehatzik ez izatea duela oso gutxi sortu zelako. Orain gorpuztu behar da, pixkanaka edo ez horren pixkanaka, Asanbladak esan beharko du nola gorpuztu.

Helburu orokorra argi daukagu: guztiontzako etxebizitza duina lortzea. Baina mezu zehatza, ildo politikoa, ekimenak berak finkatu behar du, zeren etxebizitzaren arazoak aurpegi asko baititu.

- Egoeraren diagnostiko propioa egin al duzue?

-. 8812 zenbakia kaleratu bada batzuek aurrediagnostiko bat zutelako izan da. Arazo honen faktore nagusia espekulazioa da. Eta espekulazioaren taldean jokalaria asko dago: Udaletik hasi, promotoreetatik pasa, partikularrak eta ente publikoa izanda promotore partikularraren papera egiten duen Vital Kutxa.

Promotoreek lurra merke-merke erosi eta Udalari oso garesti saltzen diote. Ondoren Udalak erosi eta gero promotore berdinei saltzen die berriro prezioa biderkatuta. Promotoreek prozesua hasi eta bukatu egiten dute: lurak erosi eta pisuak saldu. Tartean askotan komentatu diren gauza asko daude. Udalak zergatik edo zertarako atera behar du etekina? Dirua beste udal sailetarako behar duelako, gizarte etxeak egiteko adibidez, nahiz eta teoriar hori ilegala izan. Ezin da egin, baina Udalak egin egiten du eta etekina atera behar duenez, prezioa igotzen du. Promotoreek ere prezioa igotzen dute. Azkenean,... Hori da gertatzen ari dena azkenengo zortzi urteetatik hona.

- Eta irtenbiderik proposatzen duzue?

-. Irtenbidea zein den ez dakit, ezin

dizut esan. Momentuz egin behar dena da jendea batu eta denok batera "nahikoa da" esatea. Indar handiagoa lortzen badugu, azkenean politikoei gelditu beharko dute hau guztia.

Dena den, Asanbladan eztabaida sakona egin behar da horretaz eta hortik aterako dira gure proposamenak. Momentuz ez dugu irtenbide zehatzik ikusten, eta oso zaila da.

Nolanahi ere, ez dakit guri dagokigun irtenbide zehatzak ematea, guk proposamenak plazaratu behar ditugu, zer exigitzen dugun esan. Baina proposamen horiek gauzatzeko beste batzuei dagokie, beraiek egin behar dute. Horretarako daude.

- Zer iritzi daukazue azken urteotan jorratzen ari den babes ofizialeko etxe salmenta eta akolairuari buruz?

-. Zozketaren zain egon behar duzu eta hori ez da oinarrizko eskubide bat betetzeko modua. Horrek ez dauka inolako zentzurik.

Bestetik, etxebizitza horien prezioak aipatu behar dira, libreak baino merkeago izan badira, baina gutxieneko diru sarrera bat exigitzen dute eta jende guztiak ez du baldintza hori betetzen. Gainera eskaintza horrek ere ez du behar bezala gutzia kubritzen. Azkenengo zozketan ehun "eta piko" etxebizitza zozketatu ziren 5.000 lagun baino gehiagoren artean. Partxeo txar bat baino ez da.

Erakunde guztietatik daramaten politikaren oinarria etxe gehiago



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA



eraikitzea da, lehiaketa dirudi gainera: ea nork eraikitzen duen gehiago. Eta arazoa ez da gehiago eraikitzea.

- Eta zein da arazoa?

-. Hasteko beste politika bat indarrean sartu behar dela. Asko eraikita ere, prezio berdinak mantentzen badira...

Gainera, zabalagoa da arazoa, oinarrizko eskubidea dena negoziotzat hartzen dela, hain zuzen. Jende multzo handi baten beharraz aprobetxatzen dira dirua egiteko eta dirua ateratzen duten bitartean arazoa mantenduko da. Horregatik dago horrenbeste etxebizitza hutsik. 1996an 8.812 etxebizitza hutsik zeuden.

- Hori egiazko datua al da?

-. Bai, bai. Hori EUSTATEk emandako datua da. Eta orain zenbatezina da, 12.000-13.000,... Ez dago zenbatuta, baina Udalean pribatuan onartu dute zenbatezina dela. Etxebizitza hutsik duten partikular askok ez dute alokatu nahi, prezioek etengabe gora egiten dutenez, erosi eta urte pare baten buruan saltzarekin etekin handiagoa ateratzen dutelako. Eta hori erakundeen politikaren ondorio zuzena da.

- Promotore edo Udaleko ordezkariekin bildu al zarete?

-. Ez. Momentuz, ez.

- Eta biltzeko asmorik?

-. Auskalo. Aurrera begira une batean edo bestean beharrezkoa izango da... Helduko da momentu

hori. Baina egun gure kezka nagusia giza giroa sortu, jendea batu eta ekimena indartzea da. Hortik aurrera edozertarako gauza izango gara.

- Eztabaida piztea erdietsi dela ematen du.

-. Bai. Ekainaren 22an egindako lehengo asanbladara espero baino askoz ere jende gehiago joan zen, eta lan egiteko giroa oso baikorra da.

- Zer asmorekin hurbildu da jendea 8.812 ekimenara?

-. Jendea haserre dagoela ikusi genuen. "Nahikoa da" esateko momentua iritsi dela uste du jendek eta, beraz, lan egiteko prest daude. Interes handia dagoela ikusi genuen. Jendea bero dago, Gasteizen etxebizitzarekin dugun arazoa izugarria baita. Orain mugitu ezean, hiru urte barru ezinezkoa izango da hemen etxebizitzarik lortzea.

- Eta herri ekimen bat horren negozio handiari aurre egiteko gai da?

-. Bai, ziur. Hori da gure asmoa eta saiatu saiaturik gara. Politi-koek lan serioa ikusten badute irtenbidea bilatu beharko dute, orain arteko soluzio faltsuak alde batera utziz. Guztientzako konponbidea ezinbestekoa da.

 Leire Lopez de Aberasturi

 Edorta Sanz



Bi puntu hartu ditugu oinarritzat: etxebizitza guztion eskubidea dela eta horren inguruan sortu den negozio handia salatu behar dela.

Helburu orokorra argi daukagu: guztientzako etxebizitza duina lortzen.

Espekulazioaren taldean jokalaria asko dago: proposamen horiek gauzatzea beste batzuei dago-kie, beraiek egin behar dute.

Horretarako daude.

Azkenengo zozketan ehun "eta piko" etxebizitza zozketatu ziren 5.000 lagun baino gehiagoren artean. Partxeo txar bat baino ez da.




SOINUAK DENBORAN ZEHAR

BO DIDDLEY.

"HEY BO DIDDLEY!!"

AZ LIFE, 1988.



"Hey Bo Diddley!" diskoa duela hamaika urte grabatu bazen ere, eskaintzen dizkigun abesti gehienak 50 hamarkadan zehar sortutakoak dira. Beraz, **Diddley** jauna, **E. McDaniels** ponte-izenekoa, musikari mitikoa dugu; rock and roll-aren bultzatzaile, sortzaile eta maisu handienetarikoa bat, hain zuzen. Xumetasunaren bidez rock and roll-a aberastu zuen, hiru akordekin unibertso berri bat sortu zuelarik. **Chuck Berry**-rekin batera rock-aren bizkarrezurra erai ki zuen, eta eragin handikoa izan zen 60 hamarkadatik aurrera rock and roll-a garatu zuten musikari zuriengan.

Gitarra jotzen tankera paregabea erakusten zuen. Bera agertu arte inork ez zituen kordak urratu hain abiadura handiz. **McDaniels**-en abestiak sinpleak

ziren arren, bidea zabaldu zien bere jarraitzailei, horiek maisuak asmatutako doinuen gainean inprobisa zezaketen-eta. Gaur egun ere talde askok ikasten ditu bere lezioak. Moden joan-etorriek ez dute inoiz jokoz kanpo utzi, eta bere eragina 60 hamarkadan nabarmenago izan bazen ere, oraindik ere Diddley-k irakatsitakoa gitarra gazteenen eskuetan bizi da. **The Animals** eta **The Rolling Stones**-ek, besteak beste, mundu osora zabaldu zituzten Diddley-ren erritmoak, baina disko honetan egiazta daiteke sortutakoa erakusteko sortzailea bera baino pertsona aproposagorik ez dagoela.

1988 urtean, zenbait gitarra-jole ospetsuk lagunduta (**Mick Taylor** eta **Alvin Lee**, adibidez) Diddley-k bere abesti klasikoenak birpasatu zituen. "**Mona**", "**Road Runner**" edota **W. Dixon**-en "**You Can't Judge A Book By Looking At The Cover**" inoiz baino freskoagoak ditugu zuzeneko rock and roll disko hobezin honetan. Beraz, badakizue, rockaren sustrai sendonetara hurbildu nahi izanez gero, ez ahaztu Bo Diddley izena.

Behar-beharrezkoa.

Txabi Arnal-Gil

ARABAKO TALDEAK

FARINELLI.

Farinelli Gasteizen jaiotako rock and roll laukote bat dugu. Horixe! Rock and roll-a, besterik ez. Gure hiriko zenbait aretotan eskaini dizkigute zuzenean jo ohi dituzten hogeitabesti inguru. Eurak rock-ean, eta gu dantzan.

HARREMANETARAKO TELEFONOA.
945.22.09.82.

IMPURE

Sin Records-en eskutik black eta, batez ere, death metal nahasten dituen CDa grabatu zuten: *Acts Of Contrition*. Ingelesez abesten dute, eta atzerriari begiratzen diote. Diskoaren %80 Londresen, Turkian eta Kalifornian, besteak beste, zabaldu da. Zuzenean ikusi nahi izanez gero, ez ahaztu telefono zenbakia.

945.39.32.09.

COEFICIENTE O

Aurretik ezagunak badituzu, esan behar dizugu oraingoan Coeficienteko-ak ideia eta egitasmo berriekin datozkigula. Ikuskizunaren alde apustu egin behar delakoan daude. Ez dituzula eza-gutzen? Jakin ezazu, bada, Coeficiente O taldea Trash-ean aritzen dela.

TELEFONO ZENBAKIA.
945.26.96.99.

Txabi Arnal-Gil

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ehunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ



Mikel Urdangarín

Udan pentsatuz egindako musika ez bada ere, Mikel Urdangarínek kaleratu berria dauka udara honetako euskal diskorik garrantzitsuena. Ez dira tropikoetatik ekarritako soinuak, ezta estribilo errazaz osatutako melodiak. "Badira Hiru Aste" diskoan entzungo dituzunak abestiak baino ez dira; gure ustez azkenengo bolada honetan plazaratu euskal kanta onenatariko batzuk.

'Badira Hiru Aste'

- Gogoko abeslariren bat jarraitu nahi zenuelako hasi zinen kantazten?

-. Ez, ez dut inoiz inor imitatu nahi izan. Nire etxean asko abesten da beti, oso kantariak gara. Ez dakit, nik uste etxean bertan dudala eragin nabarmenena. Zaletasuna gurasoen-gandik datorkit.

- Baina, noizbait parekatu al zaituzte abeslariren batekin?

-. Benito Lertxundirekin bai. Dena den, oraindik ere nire estiloa ez da oso zehatza. Nire tankeraren bila nabilela esan liteke.

- Ez duzu denbora luzerik eman behar izan, gitarra jotzen eta abestiak sortzen ikasteko.

-. Egia esan, ez dakit, gitarra jotzen azkar ikasi nuen, baina lehendabiziko diskoa zertu nuenean hamar akorde baino ez nituen eza-gutzen. Konposatzen dudanean kantaren mamia bilatzen dut, doinuari heltzen saiatzen naiz. Nire ustez kanta on batean melodia da nagusia, eta apaindurak ondoren lotu behar zaizkio. Kantaren indarra doinu nagusian kokatu behar da.

- Gaztelupeko Hotsak argitaletxe-arekin pozik?

-. Bai, oso harreman sanoa dugu. Gainera ondo zabaltzen ari dira diskoa.

- Noizbait ikusi zaitugu talde

"kañeroekin" kontzerturen bat konpartitzen.

-. Bai. Hala ere, halakoak gertatu direnean nork bere tartea ongi mugatuta izan du. Ez dago batere gaizki zuzeneko batean estilo ezberdinetako taldeak edota bakarlariak eskaintzea. Dena den, ez gaude ohituta. Talde "kañeroen" ondoan jo dugunean, beti guk zabaldu behar izan dugu kontzertua. Dena dela, gehienetan bakarrik jotzen dugu.

- Uda garairik aproposena izaten da zuzenean jarduteko.

-. Bai, nolahi ere uda honetan hilean hiru bat egingo ditugu. Badakit asko ez direla, baina kontzertu ugari ez izateak dituzunak ongi prestatzen uzten dizu. Bestalde, gure tankera kontuan hartuz, guretzat antzokien denboraldia ego-kiagoa izaten da. Diskoa agertu zenetik hona astero jo dugu, hogeit bat agerraldi gauzatu ditugu guztira, eta orain, nahiz eta uda izan, nekaita gaude. Gainera uztaile arte irakasle egon naiz ikastola batean, eta lan biak batera eramatea neketu suertatu zait. Ikasturtea amaitu denetik lasaigo bizi naiz.

- Abesti ederrez beteriko diskoa egin duzu.

-. Bai? Pozten nau zeure iritzi horrek. Abesti bat egiten dudanean

bizitza luzekoa, eta baita nire gustukoa ere, izaten ahalegiten naiz. Ez nuke batere gogoko berehala modaz pasatuta egotea. Horixe da nire asmo eta kezka nagusia. Nire kantetan garrantzitsuagoa da melodia konponketak baino.

- Eta diskoa grabatzen lagundu dizuten musikariak bat al datoz iritzi horrekin?

-. Bai, eta egia esan gutxi aritu gara produkzio lanean. Azalduko dizut zein izan den grabatzeko prozesua. Melodia edo doinu bat asmatu eta gero gitarrak lagunduta grabatzen nuen, horixe berehala kantaren zutabe nagusi bilakatzen zelarik. Ondoren, musikariek kantak entzuten zituzten eta aberasten ahalegintzen ziren. Ez nien esaten nola jo behar zuten, nor bere musikatresna erabiltzen aditua zen eta. Dena den, bigarren pauso hau zertu aurretik, lortu nahi genuenaz luzaro mintzatzen ginen. Nik uste musikariak oso libre ibili direla nahi izan dutena egiteko. Laburbilduz, azaldu nizkien jatorrizko ideia eta abestien zentzua, eta musikariek bikain bete zuten euren lana. Bai, gogoko dut horrela lan egitea.

- Zaila izan zen musikari hauek lortzea?

-. Ez. Diskoa gauzatzen lagundu

didaten musikariak lagunak edo ezagunak dira. Ez dut inolako arazorik izan haiekin harremanetan jartzeko.

- Musikari berdinak dituzu zuzenean?

- Txubio eta Jon Artetxe izan ezik, gainerakoek lagundu zidaten diskoa grabatzen, Luis Camino eta E. Elorrieta, hain zuzen. Dena den, laukote hau ez dator nirekin kontzertu guztietara. Zenbait lagunek osatutako hautazko talde bat ere badugu. Agian ohikoena lehenengo da, baina, egia esan, biekin abesti berdinak jotzen ditut. Entseiatu ere biekin egiten dut. Ez dakit nola azaldu, oso gauza berezia da eta. Zuzeneko bat eskaintzen didatenean ez dut pentsatzen hauekin edo beste horiekin hobeto joko dudarik. Oso gustura nago biekin. Alderik? Lehenengoak baterria dauka, eta bigarrenak, ordea, perkusioa. Hori dela eta, bigarrena egokiagoa da leku txikietan jotzeko. Noizbait pentsatu dugu perkusioa eta baterria, biak, kontzertuetara eramatea, baina ez, hori luxu handia izango litzateke, eta une honetan luxuak gure ahalbideetatik kanpo daude. Nahastu naiz eta oraindik ere ez dizut azaldu lana nola banatzen dugun. Guztion artean egiten dugu. Ez dago irizpide zehatzik.

- Abestiak bikain sortzen daki-zula entzun al duzu inoiz?

- Entzun dut nire musika freskoa dela, eta batzuetan hitz gozokak ere eskaini zaizkie nire doinuei,

**Harremanetarako Telefonoa:
945.22.03.67.**



"Kanta on batean melodia da nagusia. Apaindurak ondoren lotu behar zaizkio"

"Ez nuke batere gogoko nire abestiak berehala modaz pasatuta egotea. Horixe da nire asmo eta kezka nagusia"

"Entzuleek nik sortutakoa abesten entzuteak hunkitzen nau"

kantaerari eta sinpletasunari. Orain arte aldeko kritikak entzun ditut; txarrik, behintzat, ez. Dena den noizbait etorriko zaizkit azken horiek, nahiz eta ezetz nahiago.

- Iradu zara norabait heltzeko?

- Ez, baina kantak pilatzen zaizkidanean ez dut batere gogoko gordetzea. Luzaro itxaroten bada gerta liteke jatorrizko zentzua galtzea.

- Gaztea zaren arren doinu lasaietan aritzen zara.

- Lasai ibili nahi dut. Behin trenan galdu nuen, eta horren handia izan zen nire amorrazioa, ezen erabaki bainuen hortik aurrera bizitza patxadaz hartzea. Eta horrelaxe hartu behar delakoan nago.

- Nor hurbiltzen da zure agerraldietara?

- Denetarik dago, entzuleria oso zabala izaten da. Dena den, gehienbat gazteak etortzen diren arren, nagusiren bat ere badago. Nire ustez inportanteena jendeak abestiak jakitea da. Entzuleek nik sortutakoa abesten entzuteak hunkitzen nau.

- Eta lehenengo diskoaren abestiak ere ezagutzen al dituzte?

- Ez, gutxiago. Zenbait lekutan bai, baina orokorrean jendeak uste du "Badira Hiru Aste" nire lehenbiziko lana dela.

- Hurrengo singlea?

- Badira Hiru Aste.



Txabi Arnal-Gil

Edorta Sanz

ITURRIETA

Sagardotegia

**HURBILDU !
ETA UDARAZ
GOZA ZAITEZ!!!**

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

Ka La mu TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

1 x 2 = 2

(2.000 gara / 4.000 izan gaiterke)

**... EGIN ITZAZU
HARPDEDUN**

HARPIDEDUN!: zure aita, ama, arreba, izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagarreba, amagarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

Izen Deiturak: _____

Helbidea: _____

P.K.: _____ Tfnoa.: _____

Herria: _____

Jaiotze Data: _____

Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 zenbaki) *Titularra*. _____

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia _____

EZ GALDU OPORRAK EUSKARAZ
BIZITZEKO AUKERA
ETA EGIN ZAITEZ GEU GASTEIZ
ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!!

**EUSKARAZ IRAKURTZEA
EUSKARAZ BIZITZEKO
PARADA DELAKO!!!**

Geu Gasteiz Aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a
01008 - Gasteiz. Tfno: 945 22 21 53

Gasteizko

JALAK

1999

PRINCIPAL ANTZOKIA

Abuztuaren 1.a, igandea
20:00 eta 23:00etan

LOURVIERS: "LOURVIERS' STORY". ZUZENDARIA: KIKE DIAZ DE RADA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 2.500 PTA (15,03 EURO) / 2.000 PTA (12,02 EURO) /
1.500 PTA (9,02 EURO)

Abuztuak 2, astelehena
20:00etan

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 1.800 PTA (10,82 EURO) / 500 PTA (3,01 EURO)

Abuztuak 3, asteartea
20:00 eta 23:00etan

TANTTAKA TEATROA: "EL FLORIDO PENSIL", ANDRES SOPEÑARENA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 3.000 PTA (18,03 EURO) / 2.500 PTA (15,03 EURO) /
2.000 PTA (12,02 EURO)

Abuztuak 4, asteazkena
23:00etan

Abuztuak 5, osteguna
20:00 eta 23:00etan

ESPECTACULOS MORALES, S.L.: "LA NOVIA DEL PRINCIPE", A. MILLANENA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 3.000 PTA (18,03 EURO) / 2.500 PTA (15,03 EURO) /
2.000 PTA (12,02 EURO).

Abuztuak 6, ostirala,
eta abuztuak 7, larunbata
20:00 eta 23:00etan

TEATRO FIGARO: "LA OPINION DE AMY", DAVID HARERENA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 3.000 PTA (18,03 EURO) / 2.500 PTA (15,03 EURO) /
2.000 PTA (12,02 EURO).

Abuztuak 8, igandea
20:00 eta 23:00etan

TRASGO S.L.: "LA ULTIMA AVENTURA", ANA DIOSDADORENA.
BESALKIA-ANFITEATROAK: 3.000 PTA (18,03 EURO) / 2.500 PTA (15,03 EURO) /
2.000 PTA (12,02 EURO).



SU ARTIFIZIALAK

Mendizabalean
Gaueko 11:00etan

Abuztuak 5
ZARAGOZANA piroteknia.

Abuztuak 6
CABALLER piroteknia.

Abuztuak 7
PIROGESTION piroteknia.

Abuztuak 8
VALECEA-PIR piroteknia.

Abuztuak 9
Gaueko 1:00ean
Andre Maria Zuriaren
plazan

AZKEN TRAKA:
ESTEVE piroteknia.

ZEZENSUZKOAK

Olagibel kalean
Gaueko 11:30etan
Abuztuaren
4, 5, 6, 7, 8 eta 9an

Dostela

**Florida parkean
Arratsaldeko
6:00etan**

Abuztuak 5:

Detraka taldea (euskaraz).

Abuztuak 6:

Linux Amapolux (erd.).

Abuztuak 7:

Pinpilinpausa (euskaraz).

Abuztuak 8:

Chipilandia (erdaraz).

Abuztuak 9:

Kulki (euskara).

Pailazoak

**V. Goikoetxea K.
Eguerdiko 12:00etan**

Abuztuak 5:

Xilipurdi (euskaraz).

Abuztuak 6:

Los Diana (erdaraz).

Abuztuak 7:

Azkona taldea (euskaraz).

Abuztuak 8:

Tutik ere Clowns (eusk.).

Abuztuak 9:

Los Chapittel (erdaraz).

Txotxongiloak

Peñafloridako Kondearen plazan
Eguerdiko 1:00ean

Abuztuak 5:

Antezkizuna (erdaraz).

Abuztuak 6:

Xilipurdi Antzerkia (erd.).

Abuztuak 7, 1:30ean:

Behi Bi's (euskaraz).

Abuztuak 8:

Bihar txotxongilo t. (eus.)

Abuztuak 9:

Kixka antzerki t. (eusk.)

HERRI-KIROLAK

Foru plaza-13:00

Abuztuak 5: Txinga-erute eta aizkolariak

Abuztuak 6: Aizkolariak eta harrijasotzaileak

Abuztuak 7: Emakumezkoen herri-kirolak eta "Tigre de Salinas" harrijasotzailea

Abuztuak 8: Lasto-altzariak, orga jokoa eta aizkolarien finala

Abuztuak 9: Idi probak

PILOTA

**Foru plazako frontoia-
10:30-14:00**

Uztailaren 31tik abuztuaren 9ra:

Euskal Pilota Txapelketa



ARABAKO BOLA JOKOA

Foru plaza.

Abuztuaren 5etik 7ra:

Haur, gazte eta emakumezkoen norgehiagokak

Abuztuak 8: Haur, gazte eta emakumezkoen finalak eta Lehen Mailako kanporaketak

Abuztuak 9: Lehen Mailako finala

KALE GORRIAN KOLEKTIBOAREN JAI EGITARAUUA

Abuztuak 4:

18:00etan. Jaiak hasi.
Puruak, txanpaina eta kopak
banatuko dira.

19:00etan. Askaria

20:00etan. Txalaparta

Rock Kontzertua: Los Tornillos

23:00etan. Txokolatea

Abuztuak 5:

11:00etan. Helduentzako txikien
jolasak

12:00etan. Ipuin kontalariak.

Adinaren arabera hautatuko dira
ipuinak.

19:00etan. Askaria

20:00etan. Kultur ekitaldia

23:00etan. Txokolatea

Abuztuak 6:

19:00etan. Askaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

20:00etan.

XXI. mendeko "metal-rock"
kontzertua: Bounzin
23:00etan. Txokolatea

Abuztuak 7:

11:00etan. Txotxongiloak:

"Pantha Rei"

19:00etan. Askaria

21:00etan. Carlos D'J

23:00etan. Txokolatea

Abuztuak 8:

19:00etan. Askaria

20:00etan. Rock Kontzertua:

The Body Milk

23:00etan. Txokolatea

EKITALDI HAUEK GUZTIAK "LA CALLE" TABERNAN, DULTZAINA KALEAN 10 -BEHEA- EGINGO DIRA. INFORMAZIO GEHIAGORAKO 945 23.40.48 TELEFONORA DEITU (RAULengatik GALDETU). Kontzertuei dagokienez, aldaketak egon daitezke, bai egunetan bai taldeetan. Festetako azken egunean ez dago ekitaldirik eta taberna itxita egongo da.

JAIETAKO KONTZERTUAK

TXOSNETAN

Abuztuak 4:

24:00etan: Izotz taldea.

Abuztuak 5:

23:00etan: La Xeta Pasote,

24:30etan: Skalariak

02:00etan: Los Rabanes.

Abuztuak 7:

23:00etatik aurrera

:DJen musika emanaldia.



Trepi eta Arawak

Abuztuak 8:

23:00etan: Arawak

01:00etan: Amparanoia.

Abuztuak 9:

01:30etan:

Fermin

Muguruza

03:00etan:

Betagarri.



Fermin Muguruza

FORU PLAZAN

Gaueko 12:00etan

Abuztuak 4:

La Oreja de Van Gogh

Abuztuak 5:

Complices

Abuztuak 6:



Alaitz eta Maider

Maixa eta Ixiar, Gozategi eta Alaitz eta Maider

Abuztuak 7:

Reincidentes

Abuztuak 8:

Oskorri

PLAZA BERRIAN

Gaueko 12:30etan

Abuztuak 4:

Orquesta Perello Big Band

Abuztuak 5:

Orquesta Janio Marti y Coros

Abuztuak 6:

Orquesta Carrusel

Abuztuak 7:

Orquesta Nueva Etapa

Abuztuak 8:

Orquesta Montenegro

Abuztuak 9:

Orquesta Chicago

PROBINTZIA PLAZAN

Gaueko 12:30etan

Abuztuak 4:

Acheson

Abuztuak 5:

Africa Lisanga

Abuztuak 6:

Sonora Corason

Abuztuak 7:

Diacokan

Abuztuak 8:

Ta Sonando

Abuztuak 9:

Willie Medina

BURUILERIA PLAZAN

Gaueko 1:00etan

Abuztuak 4:

Segismundo Toxicomano

Abuztuak 5:

Kaos Etiliko

Abuztuak 6:

Urtz

Abuztuak 7:

MCD

Abuztuak 8:

Zea Mays

AMARIKA PLAZAN

Arratsaldeko

19:00etan

Abuztuak 4:

Joaquin Chacon Trio

Abuztuak 5:

Pedro Ojesto Quartet

Abuztuak 6:

J.L.Torres Quartet

Abuztuak 7:

Kevin Robb & Joshua

Abuztuak 8:

Edelman Quartet

Abuztuak 9:

Miguel Angel Chastang Trio

AIHOTZ PLAZAN

Gaueko 11:30etan

Abuztuak 4:

Akelarre

Abuztuak 5:

Xabaltx

Abuztuak 6:

Iraileako 6

Abuztuak 7:

Suan Blai

Abuztuak 8:

Sakatrik



Kaos Etiliko

TXOSNAK JAIEN AURPEGI ALTERNATIBOIA

Edurne Begiristain

Joseba Olalde

"Udala ohartu da Txosnen esparrua Gasteizko jaietan erabat errotuta dagoela, jaietarako ezinbesteko gunea dela".

"Oraingo lekua aproposa da, espazio hori erabat finkatuta dagoelako, gure lanarekin kontsolidatu den gunea baita".

Komisioarentzat inportantea da txosnen bitartez jaien beste ikuspuntu bat zabaltzea.

Urtero legez, abuztuaren 4a eta 9a bitartean Luis Heinz kalea festa eta errebindikaziorako gune bilakatuko da. Txosnen giro bereziak milaka lagun erakartzen ditu urtero, eta aurten gainera, ohikoak diren kontzertuez gain, bestelako ekitaldiak ikusteko parada izango da txosnetan.

Andre Maria Zuriaren jaietan ezinbesteko bihurtu dira txosnak. Gero eta jende gehiago hurbiltzen da Luis Heinz kalera, Gasteizko talde edota elkarte desberdinek ezarritako txosnetan trago batzuk hartzera eta bide batez, musikaz, dantzaz eta giro onaz gozatzeko. Aurten, guztira, 22 txosna egongo dira, eta horien artean bi berriak dira, orain artean jarri ez duten taldeenak: S.I.F. (Arabiar Elkartasun Taldea) eta "Mugarik Gabe", 3. munduarekiko elkartasun lanetan diharduen Gobernu Kanpoko Erakundea. Horiek izango dira txosna berriak, baina aurten jarriko ez duen talderik ere bada, "Mugen Gainetik" talde internazionalista eta Langabetuen Asanblada, hain zuzen.

Azken urteotan ez bezala, aurten Txosnen Komisioak ez du zailtasunik izan Udalarekin egin beharreko kudeaketa lanetan. Hasieratik, bai Udalaren aldetik bai Txosnen Komisioaren aldetik, lan serioa egitea erabaki zuten eta horretarako batzorde bat eratu zuten.

Horrela, bai batak zein besteak dituzten eskubide eta betebeharrak zehazten duen akordio batera heldu dira bi parteak. Alde batetik, txosneroek konpromisoa hartu dute, besteak beste, hainbat kultur-ekitaldi eskaini eta gutxieneko garbitasun baldintza batzuk mantentzeko. Eta bestetik, Udalak argi-indarra, ur-horniketa eta gisa horretako zerbitzuak ziurtatu dizkie. Horrezaz gainera, milioi t'erdiko dirulaguntza jasoko du Txosnen Komisioak Udalaren eskutik.

Txosnen Komisioaren arabera, Udalaren jarreraren aldaketak badu funtzesko arrazoi bat, "Udala ohartu da Txosnen esparrua Gasteizko jaietan erabat errotuta dagoela, jaietarako ezinbesteko gunea dela, izan ere, gero eta jende gehiago hurbiltzen da bertara. Txosnen Komisioak, bere aldetik, ikusi du halabeharrezkoa dela gutxieneko baldintza batzuk bermatzea txosnen guneak behar bezala funtziona dezan.

Txosnak kokatuta dauden lekuari dagokionez ere kontrako iritzia entzun behar izan dituzte Komisiokoek. Batzuen aburuz, txosnek Mendizabalara eraman behar zituzten, baina gehienek iritzia txosnak dauden lekuan mantentzearen aldekoa da. Komisioko kideen ustetan, "oraingo lekua aproposa da, espazio hori erabat finkatuta dagoelako, gure lanarekin kontsolidatu den gunea baita".



TXOSNEN HELBURUA

Euskara, ekologia, antimilitarismoa, presoak, internazionalismoa, 3. mundua... hauetxek dira txosnek jorratzen dituzten lan-ildoetako batzuk. Eta horien alde bideratuko da festek dirauten sei egunetan bildutako dirua; izan ere, talde eta elkarte askorentzat Gasteizko festetan eskuratzeko duten dirua nahitanahiezkua da gero lanean jarraitu ahal izateko.

Baina taldeei laguntza ekonomiko garrantzitsua emateaz gain, txosnek beste helburu batzuk bete nahi dituzte. Alde batetik, urtero-urtero mantentzen den xedea, hots, Andre Maria Zuriaren jaien leku alternatiboa eta osagarria izatea. Jende askok txosnetan espazio alternatiboagoa eta era berean freskoagoa aurkitzen du. Eta hori liteke gune honen xarma nagusia, jaien egitarau ofizialak eskaintzen ez duena txosnetan topatzea. Eta hau guztia egunetik egunera, urterik urte talde ugari honako helburuei begira burutzen duten lanari esker erdiesten da; hortaz, hauei lanean segitzeko ezinbestekoa zaie txosnetan eskura dezaketena.

Aipatu helburuez gainera, komisiorentzat inportantea da txosnen bitartez jaien beste ikuspuntu bat zabaltzea. Hau da, beste jai eredu batera jotzea, hiritarron partehatzea oinarri duen jai partizipatiboagoak lortuz. Hiritarron eskuhartzea abiapuntutzat hartuz txosnetan lanean dabiltzanek datozen urteotan lan handia egin nahi dute jaietan. "Gure xedea, txosnetan lan egiten dugunon filosofia Gasteiz osora zabaltzea da, eta ez bakarrik txosnertzako espazio bat izatea". Gainera, argi dute txosnak ez direla jai eta festarako espazio hutsa, bestelako alor eta borrokak jorratzeko gunea ere badirelako. Azken batean elkarlanean eta partehartzean oinarritutako jai eredu bat bultzatu nahi dute txosnerok.



ABUZTUAK 4, ASTEAZKENA

24:00

Dantzaldia: IZOTZ taldea

ABUZTUAK 5, OSTEGUNA

23:00

Kontzertua: LA XETA PASOTE

24:30

Kontzertua: SKALARIAK

02:00

Kontzertua: LOS RABANES

ABUZTUAK 6, OSTIRALA

21:00

Antzerkia: TRAPU ZAHARRAK

"La averia"

23:00

Antzerkia: COMGRAN CIA. SAGAZ

"Emilio, el hombre sin ombligo"

01:00

Antzerkia: DETRITUS TEATRUS

"De detritus corazón"

ABUZTUAK 7, LARUNBATA

"AMINISTIAREN EGUNA"

14:30

HERRI BAZKARIA

21:00

Amnistiaren Aldeko kalejira

22:00

Kalejira amaierako ekitaldea. DJ´K

23:00

GROOVE COLECTIVE

02:00

DJ´ ZÜLLE DJ´ PREST

ABUZTUAK 8, IGANDEA

23:00

Kontzertuak: TREPI ETA ARAWAK

01:00

Kontzertuak: AMPARANOIA

ABUZTUAK 9, ASTELEHENA

1:30

Kontzertua: FERMIN MUGURUZA

3:00

Kontzertua: BETAGARRI

AURTENGO

Kontzertuak izan ohi dira txosnen egitarauaren erakargarritasun handiena. Normalean, eta orain arte bederen, egunero pare bat musika taldek jotzen dute txosnetan. Taldeei dagokienez, bi irizpide kontuan hartzen dira: bata Gasteizko taldeei tarte berezia egitea eta bestea, euskaraz abesten duten taldeei ere lehentasuna ematea. Aurre ere, aipatu baldintzak mantenduko dituzte eta beraz, kanpoko zein bertako taldeekin batera, euskaraz abesten duten musikarien presentzia handia izango da.

Alta, aurtengo jaietarako aldaketa batzuk izango dira txosnen egitarauan; euren eskaintza zabaldu asmoz, eta batik bat, beste-lako kultur alorrei tarte irekitzeko helburuarekin, 6an -ostirala- eta 7an -larunbata- ez da kontzerturik izango. Ostirala, Antzerkiaren Gaua izango da. Arratsaldean hasi eta gaua bitartean antzerkia izango da txosnen protagonista. Hiru antzerki taldek eskainiko dituzte emankizunak: Errenteriko "Trapu Zaharra" taldeak, Gasteizko "Detritus Teatro"-k eta, azkenik, Kataluniatik, COMGRAN CIA. SAGAZ "Emilio, el hombre sin ombligo" antzezlanarekin. Eta larunbatean, abuztuaren 7an, musika izango da nagusi, baina ez ohiko musika. Diskoteka erraldoi baten antzera, DJak ibiliko dira diskoak jartzen eta erritmoa gorputzean sartzen. Hasteko, Gasteizko Groove Collective, eta ondoren DJ Prest eta DJ Zülle ezizenen azpian ezkutaturik, Euskal Herrian aski ezaguna den bikotea ageriko da.

BERRIKUNTZAK

Horiexek dituzue txosnek eskainiko dizkiguten emankizunak, eta hauetxek dituzue Luis Heinz kalean topatuko dituzuen txosnen zerrenda: Bagare, AEK, EHE, IKA, Euskaraz Bizi Taldea, Eguzki, HB, Askapena, Zutik, SOS Arrazakeria, Malatxa, SIF, SUNNA, CGT, Egizan, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Hala Bedi, Ikasle Abertzaleak, Jarrai, Kakitzat - 7 kolektiboren txosna: Kakitzat, A.F.A.P, PRES.O.S, Pipi, AHTren Aurkako Asanblada, Gazte Asanblada eta Gasteizkoak-, Komite Internazionalistak eta Mugarik Gabe.

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

Argazki - Estudio

Erramun

Heraclio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tnoa: 13 71 02 Tnoa: 26 19 91
01006 01004

jo eta ke TXAPELARARI TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

HAUEK ERE BAI...



...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltegi eta barnetegietan

METALURGI-KADMIODAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

JAI EUSKALDUNAK

AIHOTZ PLAZAN



Goiuri Jauregiaren oinetan, harrizko etxe eta eskaileren artean dago Aihotz plaza. Gasteizko jaietan euskerak eta euskal folkloreak bertan dute txokoa, eta urtez urte festen alderik euskaldunen bilakatzen ari da Aihotz edo Matxete plaza. Aurten ere bertsolari, trikitilari eta dantzariak ez dute hutsik egingo eta euren doinuak entzungai izango dira jaiek dirauten sei egunetan.

Gasteizko jaietan euskal kulturaren alde bat, tradizio edo ohituretan oinarritutakoa, bultzatzea du helburu Aihotz plazak. Azken urteetan behintzat halaxe izan da, eta denbora pasa ahala gero eta jende gehiagok hartzen du parte Matxeten antolatzen diren ekitaldietan. Adin eta gustu guztietarako ikuskizunak prestatzen dira bertan, beti ere euskal kultura oinarria izanik. Hala eta guztiz ere, haurrentzat espreski zuzendutako ekitaldiak ez dira Aihotzen egiten, izan ere, etxeko txikientzako jolas eta animazioak hiriko beste hiru lekutan egingo dira: Florida parkean, Vicente Goikoetxeako parkean eta Peñafloidako Kontearen plazan. Pailazo, txotxongilo eta abarren emanaldiak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira leku horietan.

Oso arrakastasua izaten da Aihotz plazak jaietan biltzen duen ekitaldi sorta, jendetza handia hurreratzeko bertara, batik bat euskaldunak. Baina, noski, eguraldiak lagun.

Musika, dantza edota trikitixa emanaldiak egun osoan egotea, Aihotz plaza-
ren arrakasta ziurtatzen duen beste arrazoietako bat da. Plaza Berria, Foru plaza eta Aihotzekoa dira jaietan programazioa goizean hasi eta gaua bitartean eskaintzen duten gune bakarrak. Beraz, parrandarik egiten ez dutenentzat edo gaupasa egin eta goizean festa giroan murgilduta



jarraitu nahi dutenentzat, badago zer-non ikusi eta gozatu, Aihotz plazan, hain juxtu.

TRIKITIXA ETA DANTZA.

Aihotz plazako ikuskizunak eguerdi partean hasiko dira, hamabi terdiak aldera. Ordu horretan, trikiti doinuak entzungo dira. Trikitixa talde desberdinak ariko dira lan horretan: Gasteizko Trikitixa Eskola, Euskaraz Bizi Taldea eta Urkabustaiz Trikitixa Eskola, Pagoxueta Elkarte, Anguraingo Trikitixa Eskola, Folklore Akademia eta Zuiako Trikitixa Eskola. Trikitixak paso emango die bertso saioei, ordu bata eta erdietan bertsolarien txanda izango baita.

Hauek guztiak goiz parteko ekitaldiak izango dira. Arrastian dantza eta musikaren tartea izango da. Udal Folklore Akademiako Gaiteroak eta Eltziegoko Gaiteroak & The Gasteiz Latin Band taldeekin dantza egiteko aukera izango da, baita taula gainean Larrain eta Txulalari dantzak ikustekoa ere. Abuztuaren 5ean, Andre Maria Zuriaren egunean, gainera, txistu eta dantza ikuskizuna eskainiko dute Txistularien Elkarteak eta Udal Folklore Akademiako Dantza Taldeak, Luis Aranbururen omenez. Eta abuztuaren 8rako, Arabako Zazpigarren Trikitilari Txapelketa eta Arabako Haur Trikitilarien Hirugarren Txapelketa, arratsaldean.

Gauean, berriz, kontzertuak izango dira bertan. Euskal talde desberdinak ari tuko dira gauari martxa jarritz eta giroa animatuz hamaika eta erdietatik aurrera.

 Edurne Begiristain
 Edorta Sanz

BERTSOLARIAK

Eguerdiko 1:30an

Abuztuak 5: R.G. de Durana, A. Egaña, U. Iturriaga, B. Elizagoien. Gaijartzailea: Pablo Pagegi.

Abuztuak 6: O. Perea, J.M. Irazu, J. Maia, I. Elortza.

Gaijartzailea: Abel Enbeita.
Abuztuak 7: M. Lujanbio, Z. Enbeita, B. Gaztelurrutia, N. Soroa. Gaijartzailea: Axier Iriondo.

Abuztuak 8: A. Otamendi, A. M. Peñagarikano, E. Arozena, J. Lopategi. Gaijartzailea: Txerren Ormaetxea.

Abuztuak 9: A. Agirre, M. Telleria, O. Enbeita, X. Lizaso. Gaijartzailea: Irati Anda.

DANTZAK

Arratsaldeko 7:00etan

Abuztuak 4 (7:30): ELTZIEGOKO GAITEROAK & THE GASTEIZ LATIN BAND

Abuztuak 5: Txistu kontzertua eta dantza: Txistulari Elkarte eta Udal Folklore Akademiako dantza taldea, LUIS ARANBURUren omenez.

Abuztuak 6: Udal Folklore Akademiako dantza taldea.

Abuztuak 7: Euskal Herriko Haurren IV. Dantza Askatu Txapelketa.

Abuztuak 8: Arabako V. Trikitilari Txapelketa eta Arabako Haur Trikitilarien III. Txapelketa.

Abuztuak 9 (7:30): Udal Folklore Akademia. Dantza Plazan.

Arratsaldeko 8:30etan

Abuztuaren 4, 5, 6, 7, 8 eta 9an

“Larrain Dantza” eta “Txulalari”.

LUIS SOSOAGA: "ILUSIO HANDIA EGIN DIT URREZKO ZELEDOIA NIRI EMATEAK"



Luis Sosoaga izen ezaguna da gozogileen artean, izan ere 25 urte daramatza gozogintzaren munduan. Bere abizenak ospe handia dauka bai Araban bai gure mugetatik harat ere. Aurten Urrezko Zeledoa emango diote gasteiztar honi -baita Manuel Iradier Elkarteari ere-gure hiria kanpoan ezagutarazi eta bere alde lan egiteagatik.

- Noiz eta zergatik hasi zinen gozogile gisa?

.- *Mundu honetan sartu nintzen nire familia gehiena gozogilea zelako. Vigoko lehenengo Gozotegi Eskolan ikasi eta ordutik hona ofizioan jarraitu dut. Hasieran familiarekin, gero elkarte anonimo batean eta duela 3 urtetik hona nire kabuz ari naiz, nahiz eta "Sosoaga Hermanos" taldearen barruan egon.*

- Maila ona al daukate Gasteizko gozotegiek estatukoekin alderatuta?

.- *Bai, hemen oso kalitate ona dago. Kanpotik Gasteiza datorren jende gehienak hiru gauza erosten ditu: Errioxako ardo-botila, karten barajak eta gozoak (bonboiak, trufak...). Kanpoko jende askok Gasteizko postreak oso gustuko ditu, izan ere kalitate handia daukagu.*

- Eta zu, gozozalea al zara?

.- *Gozozalea baino gehiago, dastatzaile ona naiz. Zaporeak ondo dastatzen ditut. Gainera gero eta gehiago gustatzen zaizkit pastelak eta horrelakoak.*

- Aurki Gasteizko jaiak hasiko dira, zuk nola pasatzen dituzu?

.- *Gasteizko jaietan beti lanean egoten naiz. Baina lanarekin batera ondo pasatzeko beta ere izaten dut. Egia da, lehen, gazteagoa nintzenean gaur pasak eta parrandak egiten nituela, eta orain ez, baina festak gozatzen ditut.*

-Euskaraz ba al dakizu?


.- *Ez, ez dakit. Orain beranduegi da ikasten hasteko, lan asko daukat eta denbora gutxi.*

- Araban euskara aurrerapausoak ematen ari da, gero eta jende gehiagok ikasten du euskaraz. Zer deritzozu horri?

.- *Ondo deritzot, baina agian hezkuntzan gehiagi presionatzen dira haurrak, eta familia erdaldunetako haurrei euskara inposatzea ez da bide zuzenena euskara irakasteko. Askatasun gehiago eman beharko litzaeike euskara ikasteko.*

- Aurtengo Urrezko Zeledoa zuri emango dizute. Zer suposatzen du zuretzat horrelako saria jasotzeak?

.- *Nik beti miretsi dut horrelako saria hiriaren alde lan egin duen norbaiti ematea. Ilusio handia egin dit sari hori niri emateak, horrek erakusten baitu hiria zurekin dagoela, zure lana baloratua dela.*

 **Edurne Begiristain**



Jaime Ortega

KALE GORRIAN ERE "LA BLANCA"-n

KALE GORRIAN kolektiboak hainbat ekitaldi prestatu ditu "La Calle" tabernan garatzeko

Zergatik antolatzen dira Gasteizko jaietan ekitaldi guztiak erdialdean? Auzoetan ezin daiteke ekitaldiren bat edo beste prestatu, ala? Honengatik eta defizit hau konpondu nahian, San Kristobal auzoan Kale Gorrian izeneko elkarteak hainbat ekitaldi eskainiko ditu jaietan La Calle tabernan, Dultzaina kalean.

Kale Gorrian kolektiboa aurten jaiotzen da, La Calle taberna ireki zen egunean; hau da, martxoaren 24an, NATO erakundea Yugoslavia herrian bonbak jaurtitzen hasi zenean. Hasieran ekitaldi kulturalak egin ziren asteazkenero. Tabernak duen eszenatokitik Adurtza Dantza Taldea, CCP - Cafe, copa y puro-, Bitoitza Kathru (Arrate eta Isabel), Los Treboles ipuin kontalariak, Maite mimoa, Kuxmiren laguna ipuin kontalaria... pasatu dira. Seguruenik irailetik aurrera askoz ekimen gehiago eramango dira aurrera. Bai Geu Gasteizen bai Hala Bedi irratian bai La Calle tabernan bertan iragarriko dira ekitaldiak. Orduan badakizue, adi egon.

Aurten Gasteizko jaiak nolabait ospatzeko Kale Gorrian kolektiboak kalean bertan, kale gorrian, eszenatokia ateraz hainbat ekitaldi eskainiko ditu.

Tabernak jaiak dirauten bitartean goizean goiz, 10:00ak aldera, irekiko ditu bere ateak eta gosariak, helduentzako ume jolasak, herri bazkariak, ipuin kontalariak, malabareak... izango dituzu bertan, nahi izanez gero. Eta arratsalde, askaria eta kontzertuak. Besterik gabe, ez galdu aukera eta etor zaitez La Calle tabernara.

 **Raul Saez de Buruaga**

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak

kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKO

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ



Jaietan, kirolez kirol

Argi dago, norberak bere kabuz egiten du jaia. Baten batek kontrakoa uste dezakeen arren, jaietan tabernetako eta txosnetako kirolak praktikatzeaz gain, bestelako kirolek ere badute zer eskaini. Egia esan, aukera ez da zabala, baina herri-kirolak, pilota eta Arabako bola jokoa atsegin dituztenak ez dute kexatzeko aukerarik. Kirol horien zaletu guztiak Foru plazan dute zita; gu hara hurbildu gara herri-kiroletan aritzen diren neskekin hitz egiteko asmoz.

Arabako Badaiotz eta Betagarri taldeetan hainbat emakumek dihardute herri-kiroletan. Horrela, Betagarrikoek harria, trontza zein gurdia lagun duten bitartean, Badaiotzekoak soka-tiran aritzen dira. Talde horretako kidea den Cristina Calvok egungo egoera azaltzen digu: "Badaiotz taldea orain 15 bat urte jaio zen, lehen emakumezko hiru talde geunden, baina oraintxe gu bakarrik lehiatzen gara soka-tiran. Betagarrikoak, berriz, hiri zein herri desberdinetako plazetan erakusketak egiten dituzte. Horietan ingudea, sakulariak, trontza... denetatik egiten dute".

Herri-kiroletan dagoen neska kopurua handia ez den arren, euren lana nabarmentzekoa da. Adibideak ugariak dira, baina Cristinak bi aipatu dizkigu, "gure taldean Lopez de Uralde trontzalaria ditugu, Euskal Herriko txapel-dunordeak direnak, hain zuzen. Bestetik, Betagarriko emakume bat



mutilekin aritzen da nor baino nor harrian. Arabar Mendialdekoa duzu eta ikusgarria da mutilekin zelan moldatzen den". Bi taldeetan, guztira, 30 neska inguru daude, Gasteizkoak nahiz Arabako herrietakoak.

Euskal Herriko gainerako lurraldeetan herri-kirolaren egoera antzekoa da. Soka-tiran, esaterako, Badaiotzez gain, lau talde dira Hegoaldean, Bizkaian bi eta Nafarroan beste bi, "horietako bat desagertzeaz dago" gaineratzen du Cristinak. Bere iritziz, "etorkizunari begira kezkatzekoa da. Baina, ez bakarrik emakumezkooi dagokigunez, gizonezkoen herri-kirola ere arriskuan baitago". Hala eta guztiz ere, Badaiotzeko neska kopuruak gora egin du azkenengo urtean: "joan den urtean oso larri ibili ginen, zazpi lagun baino ez baikeunden, soka-tira taldeak zortzi lagunek osatzen dituzten arren. Oraintxe, berriz, hobeto gabiltza, lau berri sartu baitira, eta, guztira, 12 gara".

HOLANDARRAK ETA JAPONIARRAK SOKA-TIRAN

Txapelketetan parte hartzeko prestakuntza ez da txantxetakoa.



**Arabako
Badaiotz eta
Betagarri talde-
etan hainbat
emakumek
dihardute herri-
kiroletan**

**"Soka-tira dela
eta
ez dela,
aitak eta
nebak barre
egiten
zidaten"**

**"Aurreko
munduko
txapelketaren
finalak
14 minutu iraun
zuen, gezurra
zirudien..."**



txapelketaren finalak 14 minutu iraun zuen, gezurra zirudien...". Irlandan izan zen hura eta Badaiotzek parte hartu zuen kategorian Sakanako taldeak irabazi zuen. Cristinak dioenez, "euskaldunak soka ondo moldatzen bagara ere, oso etsai finak ditugu, besteak beste, Holanda eta Japonia. Ez dakit zergatik, baina japoniarrak oso onak dira tiratzen. Dena indarra ez denez eta elkarrekin lan egiteko grina dutenez, oso zaila da beraiek menperatzea". Esan beharra dago Badaiotz bosgarrena izan zela Irlandan.

Beste gazte batzuen moduan, Cristina egun batetik bestera hasi




zen kirola egiten. "Euskaltegian nengoela sartu nintzen Badaioitzen, frogatzearren, besterik gabe. Hasieran nire aitak eta nebak barre egiten zidaten, baina ez nien jaramonik egiten. 'Horretarako entrenatu behar da?' galdetzen zidaten, ez zekiten zer esaten zuten. Orduetik, zerbait ikasi dute, zorionez". Cristina eta gainerako lagunak Foru plazan izango dituzu jaietan; beraiekin bat egin nahi baduzu, inguratu eta pozarren hartuko zaituzte.

Izan ere, Cristinak eta bere lagunek hiru egunetan lantzen dituzte fisikoa zein soka. "Hala izan behar du, bestela, ez legoke lehiatzerik. Soka zaudela, hanketako eta eskuetako muskuluek izugarritzko lana egin behar dute, eta, hain zuzen ere, horiek landu behar ditugu entrenamenduetan. Gogorrena arerioari soka eustea da, hortxe egotea oso zaila da eta bi minutuz zaudenean lur jota bukatzen duzu. Aurreko munduko

**"Gure taldean
Lopez de Uralde
trontzalariak
ditugu, Euskal
Herriko txapel-
dunordeak dire-
nak, hain zuzen"**

Ismael Diaz de Mendibil

 *Nuria Gonzalez
eta Edorta Sanz*



HEGOALDE

matrikula zaitez!

Jose Lejarreta 9 behea · tfnoa 945 28 41 96 · 01003 GASTEIZ

*zure
publizitatea
EUSKARAZ*

Tfnoa: 945 22 21 53

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI

HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*




adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35



Abuztuaren 7a heldu eta Endika Zeledon Txiki bilakatuko da bigarren urtez. Bere egitaraua benetan luzea da, baina berak gogo handiz hartzen du.

Egun horretan goiz altxatu eta lehenik eta behin lore eskaintza Andre Maria Zuriari, gero ohorezko aurrekua berak eskainia, ondoren, Plaza Berrira jaitsiera egitera, eta bukatzeko zirkora. Buff, hau saltsa!

Festa hauen amaieran Endikak urtebete du Zeledon Txiki izateko. Handik aurrera, bere familiaren ohiturari jarraituz, Endikaren lehengusuak hartuko du testigua. Dena dela, ez dio beldurrik Zeledon handiaren papera izateko aukerari. Batek daki!

Geure artista: ZELEDON TXIKI



Itziar Uriarte Fdz. de Troconiz  Edorta Sanz





ZEN DA ZUREZAT...

IBAN, 4 URTE

Txapela, praka zuri-beltza eta "blusa" daukan umea. Han ume asko biltzen gara eta gaudenoi gozokiak botatzen dizkigu.

ZELEDON T



XABIER, 8 URTE

Urtero Zeledon Txikiaren jaitsiera ikusten dut baina nahiago dut Zeledon handia ikusi giro ikusgarriagoa sortzen delako. Bere arropa "blusek" eramaten dutena bezalakoa da.

X
I
K
I




RICARDO, 10 URTE


Zeledon Txikik oso ondo pasatzen ditu festak. Hala ere, niri ez litzaidake gustatuko Zeledon izatea lan handia daukalako jaietan zehar.

GEURE ARTI

Alexander



Amaia



Arkaitz





ABUZTUKO BERRIA: GASTEIZKO FESTAK

Azkenean heldu dira bai, eta hasteko irrikan urte osoa eman ondoren hementxe dauzkagu jada primeran izateko sei egun zoragarri.

Festak ondo igarotzeko aukera asko daude, adibidez: pailazoak, su artifizialak, txotxongiloak, gargantua, kontzertuak, barrakak, eta abar.... Hau ikusita lo egiteko orduak erabat murrizten dira, baina ondo pasatzeko bada ez dago inolako arazorik, ezta?


Egitarauaz gain badira mila gauza egiteko ahalbideak, hala nola, giroa dastatu edota hirian sortzen den mugimenduan esku hartu. Baina heldu heltzen da beti festako unerik tristeena, Zeledonon igoera, San Ferminak bukatzen diren egunaren antzera. Bakarrik pentsa dezakegu gutxiago geratzen dela hurrengo jaien hastapenerako.

STAK

ODON DE APRAIZ IKASTOLA (3 urte)


Natalia

Patricia





Errege Atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Ajenda

JOKIN ZAITEGI

XIII. Itzulpen laburren sariketa.

Arrasateko AED Elkarteak, "Jokin Zaitegi" arrasatear idazleari jarraiki, euskaldungoari eskaini gura dio, gai zehatz bati buruz bada ere, sarritan eskuragaitza den mundu zabaleko zenbait informazio.

Horregatik, eta itzulpengintza sustatzeko asmoz eta helburuz gainera, sariketa honen deialdia zabaldu du.

Aurten gaia libre izango da, munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitzke.

Lanak helbide honetara bidali behar dituzue

1999ko urriaren 29 baino lehen: AED Elkarte (Tfnoa.: 943 77 12 28)

"Jokin Zaitegi" Sariketa

Pablo Uranga kalea, 4 behea

20.500 ARRASATE

JOKIN ZAITEGI



"PAD POLIA" Javier Nevadorena.

ESPACIO-ZULOA erakustaretoa

Abuztuak 13ra arte.
Eta Irailean "GERMEN"

POP-ROCK ETA MUSIKA BERRIEN IV. hamabostaldia

1999ko abuztuaren 16tik
27ra. Katanga Kultura
Factorian. Aurtengo ikastaroak hauek izango dira:
Bateria, baxua, gitarra,
ahotsa, saxoa, perkusioa,
monografikoak. Matrikula
saria 2.000 ptakoa. da, eta
astebeteko ikastaro batera
joateko eskubidea ematen
du, instrumentu batean
zein ahotsean.

BANDOA

De parte de los abajo firmantes se hace saber a todos y todas las habitantes de esta ciudad:

Que no es el euskara, como a nadie, lengua mayoritariamente utilizada en esta población por lo que es preciso esforzarse en su uso. Y como justo es poder a las habitantes de esta ciudad que aprendan el euskara, establezco lo siguiente a fin que lo saben que se utilicen con normalidad. Por lo tanto, y como correspondiente, deo eta debiadar agintu zain euskaldun jendeon: euskara gure hizkuntza gaurdanik bertatik erabiltzera etxean zein jendaurtean, Gasteiz hiri euskalduna izatea lortu arte arrazoizko epe batetan. Ez dago aitzakirik ez mintzatzeko ezagutzen eta maite den hizkuntzaz: Horregatik aldarrikatzen dugu:

**euskaraz
eta kitto!**

TXOSNEN EUSKALTZALEON BLUSEN
BATZORDEA ELKARGUNEA BATZORDEA

Egunkaria



Bazkide lagun horri:

Dagoeneko jakingo duzunez, EUSKALDUNON EGUNKARIAK bere diru kapitala handitzea erabaki du.

Aurrekoan egin genuen moduan (2 akzio erosi genituen) honetan ere proposamen horri heldu nahi dio GEU ELKARTEAK.

Egun, Euskaldunon Egunkaria da Euskal Herrian euskaraz dagoen egunkari bakarra. Hau eta GEU ELKARTEA euskararen normalkuntzaren helburuarekin bat datoz, gizarte euskaldunaren eskubideak aldarrikatzen.

Gauzak horrela, hainbat akzio erostea pentsatu dugu.



Hau guztia dela eta, eta Geure bestelako proiektuak ez baldintzatzeko, zuregana jotzen dugu berriro ere laguntza bila.

Honetarako zozketatxo bat antolatu dugu. Diru ekarpenen bat egiten duzuen bazkide guztien artean, afari bat zozketatuko dugu, Iturrieta Sagardotegian (Aramaio).

Irabazlea Geu Aldizkarian agertuko da.

Besterik ez, zure laguntza jasoko dugulakoan, jaso ezazu gure agurrik beroena:



Nola egin zure diru ekarpena...

Elkarteari laguntzeko hiru aukera daukazuz:

2.000 ptakoa. • 5.000 ptakoa

edo zuk nahi duzun kantitatekoa

Diru ekarpena gure kontu korrontean egin beharko duzu, zure "izena-abizena. Akzioa" jarritz (ad. Pili Orea. Akzioa) edo bestela gure telefonora deituz: 945 22 21 53 (goizez).

Euskadiko Kutxa: 3035 0142 26 1420005615

MIKO

izozkiak



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

PLATÓ

TABERNA

Zaldiaran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA

jatetxea

on egin! bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUTAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa	Espainia plaza, 1	010
	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prensa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa	Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Dato kalea, 11	16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Arkitektura	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30	16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 13 25
	Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde	Alberto Shommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50
	Judimendi	Sefarad plaza, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Aldabe	Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31
	Biltzar-eta Turismo Zerbitzua	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91
	Kirola	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 61
	Europar Mugimenduaren E.K.	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 57
	Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85	16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa	Agirrelanda, 8	16 14 58
	Antolakuntza	Agirrelanda, 8	16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99


IKATZ
FOTOGRAFIA • IMAGEN

ERREBELATUAN ESKAINTZA



**4 Rollo errebelatu eta 3 ordaindu
Banaka ekar ditzakezu**


GASTEIZ

Gorbea, 44 (Esquina Cruz Blanca)
Dendaraba

Plza. Barandiarán, 1

Ecocentro-Ptal. de Villarreal

Jacinto Benavente, 39 (Estudio)

Polvorín Viejo, 9 

BILBO

Alameda de Urquijo, 11
(Coliseo Albia ondoan)

DURANGO 

Barrenkale, 26
(Udala ondoan)

BASAURI 

Plz. Arizgoiti, 6

EIBAR

Julián Etxeberría, 11

ARRASATE

Iturrioz, 8

MIRANDA DE EBRO

San Agustín, 20


IKATZ
FOTOGRAFIA • IMAGEN
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa